

## PEDRO BOSCH GIMPERA IKERTZAILEA

Duela urte batzu hil zen Pedro Bosch Gimpera ikertzaile jakituna. Garai berean zerbait idatzi nahi nuen, baina beste zeregin batzuk galerazi zuten nere asmoa. Orainezkero hor geldituko zen asmoa asmo, inoiz betetzera heldu gabe, oraintsu, bi aldiz, bere oroitza izan ez banu.

Bere aspaldiko lan asko, Historia zahar, arkeologia eta etnografia estudiantarako, oraindik oinharrikoak ditugu. Eta gaiok hain gogoko ditudanez, ahaleginik egin dut liburuok handik edo hemendik lortzeko. *Historia de Oriente* bi tomoak, 1927-28an argitaratuak, uste baino merkeago aurkitu ditut Barcelona-ko liburu-denda batean. Bere *Etnología de la Península Ibérica*-rekin ez dut izan holako suerterik.

Bere ikasle izanak eta orain Arkeologiako irakasle den Tarra-dell-ek dionez lan horiek, hain zaharrak direlarik ere, beren ehunetik hirurogeiko partean baliozkoak direla.

Azken "Munibe" eskuratu zait, aurtengo 1-2 zenbakiak osatzen dituen eta Juan Mari Apellanizen lan eder batekin aurkitu naiz. Neolitos garaitik Metalen garaira arteko azterketaren aburu berriak agertzen dituena. Apellanizek Santimamiñe eta ingurua hartzen ditu onharri lehengizonen lurrontzietatik eta bestelako lanabesetatik irizpide berriak emateko. 1973an argitaratu zuen *Corpus de materiales...* lanaren ondorioak dira. Lan teknikoa benetan. Teoria aldetik ikusten dugu Bosch Gimpera-ren aldetik ez doala, baizik ondorengo Martin Almagro hurbil. Hala ere, Apellanizek aitortzen du Bosch Gimpera-ren hasierako oinharriari esker ezagutu direla ondorengo aurrerapenak. Hemendik ikusten dugu, Kataluña-ko Arkeologiaren aita izan zela hemengoan hastapenen bideak markatu zituen. Izan ere, T. Aranzadiren adiskidea zen, biak Barcelonako Unibertsitatean irakasle zirenez.

Pedro Bosch Gimpera-ak hemengo Arkeologiaz jarri zituen teoriako oinharriak trikuharriari (dolmeneri) buruzkoak izan ziren. Lehen batean Portugal aldetik ekarritakoa zela uste zuen, geroago bestelako iritziez aldatuz joan bazen ere. Teoriak izan dute alda-

kuntzarik, baina lanerako plangintzak hor daude bere laguntzaz markatu ziren bezala. Gainera, pozgarri zaigu, Apellanizen lanetik ikus dezakegun bezala, urteak igaroaz ere hemengo ikerketaz arduratzen zela jakiteak. 1923 jarri zituen lehen teoria haiek, geroago, 1932 zuzenketaz berrituko zituenak. J. M. Barandiaranek egiten zituen azterketak eta sintesisek arretaz jarraitzen zituen. Eta ondoko ikerketak eta teoriak ezagutu ondorean berearen zuzenketak egiten jarraitu zuen.

Bestelako lanik ere egin zuen Euskal Herriari buruz, J. Bilbaoren *Eusko-Bibliographia* (Ed. Auñamendi-k argitaratua) dugu lekuko. Obra honen bigarren tomoa ikusi besterik ez dago, gure herriarekin zer ikusirik duen lanez 106/108 orrialdeak erakusten digute.

Mexico-n hil zen igazko urriaren 9an, 83 urte zitularik. Izaitez Barcelona-n jaioa zen 1891ko martxoaren 2lean.

Bere espezialitatean mundu guzian zuen ospe handia, eta Kataluñan bertan zer esanik ere ez. Unibertsitatean nortasun handiko maisua izan zen eta Kataluñako Arkeologia Eskolaren sortzailea. Gazterik, Barcelona-n bertan Filosofia eta Letrak estudiatu zituen, eta greko literaturaz izan zituen bere lehenbiziko kezkek. Madrid-en eta Alemania-n gehitu zituen bere estudioak. Dotoradutza egin ondorean ososorik sakondu zen Arkeologia eta Historia zaharrean, bere zaletasunak hontan finkaturik. Barcelona-ra itzultzean bertako Unibertsitateko irakasle, eta historia aurreko ikerketaz arituko ziren mihintegien sortzaile izan zen. 1919 Katalan Unibertsitateko Batzar nagusi bat antolatu zuen, eta ondorean "Servei d'Investigació Arqueologica del Institut d'Estudis Catalans" antolatu zuen.

Bere herriaren alderako maitasuna erakutsi zuen, eta bere jantzentzaren itzala lagungarri izan zen Unibertsitateko ikasleen artean kataluiniako hizkuntza eta kulturaren alderako kezka sartzeko, bere *La Universitat i Catalunya* liburuaren sarreran agertzen duen bezala.

Ibero eta kelta azternategietan arkeologia lanetan aritu izan zen. Matarranya, Maestrazgo-ko pinturetan eta Sant Cugat del Vallés-ko monastegian ikerketak eginga da gure mende honen lehen partean. Eta geroago Ampurias-ko azterketetan zuzendari izan zen.

Bere aspaldiko lan haieri esker Espainiako Arkeologia azterketen oinharriak jarri zituen. Zientzia hoietaz anitz idatzi zuen, bibliografia handi baten jabe da eta bere agiri horiek balio handikoak ditugu. Bere *Etnología de la Península Ibérica*, esate batera, oraindik ere oinharritzko lana da gai hontaz lan egin nahi duenarentzat.

1933tik 1939ra Barcelona-ko Unibertsitateko erretora izan zen. Gerraondorean, desherriturik, Oxford-en irakasle izan zen, baina Europako gudaketagatik Amerika aldera jo zuen, Panamá eta Colombia-an egon ondorean Mejiçora jo zuen 1941ean bertako Unibertsitatean irakasle izateko. Han bertan ere Arkeologia lanak jarraitu zituen bere heriotzara arte.

J. SAN MARTIN